

**BERRIA. 21/05/2013**

**Anjel Lertxundi.**

### **Uholdeka**

Asteburuaren kaskarrak Idoia Estornésen *¿Cómo pudo pasarnos esto?* (Nola gertatu ahal izan zitzaigun hau guri?) memoria liburua irensteko parada eman zidan, uholdeka ninderaman irakurketak. *60. hamarkadako neska baten kronikan* (hori du azpigitulu) ageri diren ertz askoren arantzek zorrotz ziztatzten dute, desadostasunek kontrasterako bidea ematen. Izenburuko galderari erantzun nahi gordina da liburua, autorearen memoria eta pertzepziotik abiatutako deskargua.

Estornésesek bizi osoa eskaini dio Euskal Herriaz esan eta idatzi dena bildu, antolatu eta argitaratzeari, eta eskarmentuz daki ikuspegi desberdin askoren elkarguneak ematen duela historiari kabalena. Euskal historiografiaren dokumentu, lekukotasun eta datu esanguratsuenekin lan egin eta gero, Estornésesek bere talaia ere erantsi dio *60. hamarkadatik gaurdainoko urte zurrunbilotsuen uholdeari*.

Liburuak ez du inor indiferente utziko, hori ere balio erantsia du.